

JANGELAKO ARAUDIA 23-24 IKASTURTEA

JANGELA ERABILTZEN DUENAREN ESKUBIDEAK

1. Ikasleak jangelako zerbitzua era higieniko egokian jasotzea.
2. Ikaskideen, begiraleen, nahiz jangelako langileen aldetik errespetuzko trataera izatea.
3. Hilabete bakoitzeko menua aldez aurretik ezagutzea. Ikastolako web-gunean ikusteko aukera izango dute.

JANGELA ERABILTZEN DUENAREN BETEBEHARRAK

1. Ez ohiko bazkaltiarrek jangelako zerbitzua erabili ahal izateko aurrez idazkaritzan jakinarazi behar dute, goizeko 9ak baino lehen.
2. Jangela garaian, Ikastolako Elkarbizitzarako Araudia errepetatuko dute eta gela orduetan dauden arau (Jokabide Desegokiak, Kaleratzeak eta Bizikidetzaren aurkako jokabideak) berdinak aplikatuko zaizkie.
3. Eskuak, neurri higieniko gisa, jangelan sartu aurretik garbitu beharko ditu.
4. Ahalegindu emandako guztia jaten.
5. Jangela barruan, ikasgelan izan behar den errespetuzko portaera berbera izango du.
6. Jangelan, Ikastolan bezala, euskara izango da erabiliko den hizkuntza.
7. Jangelako kide guztiak errespetuz tratatuak izango dira, inor bultzatu, kolpatu edo iraindu gabe.
8. Lasai hitz egin, hau da, zalaparta sortu gabe, lasaitasunez bazkaltzeko.
9. Begiraleak edo jantoki arduradunak kontrakorik esaten ez badu, beti leku berean eseriko da.
10. Langileen aholkuak entzuteko prest egon behar du, horretarako egon daitezken eragozpenak baztertuz.
11. Janaria eta jateko tresneria egoki erabiliko da, lurrera edo mahai gainera bota gabe. Zerbait eroriko balitz, jaso beharko lukete.
12. Janaria eta jateko tresneria egoki erabiliko da, lurrera edo mahai gainera bota gabe. Zerbait eroriko balitz, jaso beharko lukete.
13. Janari-bandejak jasotzerakoan txanda errespetatuko da, aurrekoei edo atzekoei bultza eta trabarik egin gabe.
14. Janari-bandeja jaso ondoren, berriro bere tokian eseriko dira jangelako arduradunak esan arte eta zalaparta sortu gabe txintxo egongo dira.
15. Jantokitik ateratzeko begiraleek edo jantoki arduradunek adierazten duten ordenan aterako dira.
16. Mahai bakoitzean mahai-arduradun bat egongo da. Honen betebeharrak hauek izango dira:
 - a) Zerbait falta denean, jantoki arduradunari edo begiraleari eskatu.
 - b) Mahaiko ura bukatutakoan, altxa eta hornitu.
 - c) Bukaeran mahaia zapi batez garbitu eta mahai azpikoa txukun geratzen dela ziurtatu.